

# **Erronka: Gazteak**



## **VITORIA-GASTEIZ 2020KO URRIA GAZTE PLANA**

### **“ERRONKA: GAZTEAK” GAZTE PLAN BEREZIA**

## AURKIBIDEA

0.- Sarrera	3
1.- "Erronka: Gazteak" gazte plan berezi honen ezaugarriak	5
2.- Zeharkako printzipio gidariak	6
2.1.- Iraunkortasuna	6
2.2.- Erantzunkidetasuna	6
2.3.- Genero-ikuspegia	6
2.4.- Ekitatea	6
2.5.- Euskara	6
2.6.- Errespetua eta bizikidetzatza	7
2.7.- Integraltasuna	7
2.8.- Kalitatea	7
3.- Gazte-planaren ikuspegia eta misioa	8
4.- Lege-oinarria	9
5.- Egiteko prozedura.	10
5.1.- Faseak	10
5.2.- Egitura: lana arloka	11
5.3.- Garapen iraunkorreko helburuak (GIH)	11
6.- Errealitatearen hausnarketa	14
7.- Lanaren lehentasunak eremu bakoitzean	20
8.- Lehentasunen, helburuen eta ekintzen mapa	23
9.- Ekintzak eremuka	28
10.- Denboralizazioa	39
11.- Aurrekontua	41
12.- Ebaluazio-sistema	42

## 0.- SARRERA

2005. urteaz geroztik, Gasteizko Udalak gazte-planak egin izan ditu, udal-jardueraren arlo guztietan eta udal-sail guztietan garatzen diren gazte-politikak egituratzeko tresna gisa. Gainera, Gasteiz Gaztea gazte-eragileen sarearen bilakaerari esker —Udalak garatutako politiketan inplikaturata dagoena—, hiriko gazte-planetarantz jo genuen, ez soilik udaleko planetarantz.

- I. Udal Gazte Plana (2005-2008)**
- II. Udal Gazte Plana (2010-2012)**
- III. Udal Gazte Plana (2013-2015)**
- IV. Udal Gazte Plana (2017-2019)**

Bilakaera horretan, 2020. urtea V. Gazte Plana (2021-2023) eraikitzeke erabiltzea zen asmoa, planak eta legegintzaldiak bateratzeko joerarekin jarraituz. Prozesu osoaren abiapuntua 2020an egin beharreko gazte-politikei buruzko jardunaldiak ziren, eta galdera honen goiburu nagusia zuten: "Normalizatzen, kronifikatzen eta barneratzen ari gara gazteen prekaritatea?". Horrez gain, sare-lanak politika horiek garatzeko duen garrantzia ere kontuan hartzen zen.

Baina IV. Gazte Planaren ebaluazioa amaituta zegoenean eta martxoan prozesu osoan esku hartzen duten eragileei aurkeztu behar zitzaizenean (Gazteen elkargunea, udal-talde politikoak eta IV. Gazte Planaren garapenean sortutako Gasteiz Gaztea gazte-eragileen sarea), Covid-19k eragindako pandemia iritsi zen, eta martxoaren erdialdean egoera aldatu zen.

Gazte-planeko teknikariek proposamen tekniko bat aurkeztu zuten egoera berri horri aurre egiteko eta konfinamenduaren eta geldialdi ekonomikoak sortutako lan-egoeraren harira sortutako hainbat arazori erantzuteko gazte-plan berezi bat egiteko. Proposamena gazteria-arloko zuzendaritza eta zinegotzigoak onartu zuten, eta plan hori eraikitzeke prozesua abiarazi zen, "Erronka: gazteak" izenekoa. Ez du izango uste genuen iraupena, 2021etik 2023ra; izan ere, urtebeteko iraupena izango du, eta egoerak ezartzen dizkigun aldaketetara egokitzen saiatuko gara. Horrela, gazteria-politiken esparruan jarduteko malgutasunaren adibide bat da, errealitate aldakor bati erantzun behar baitiote.

Gazte Plan bat administrazio batek, kasu honetan Gasteizko Udalak, bere politikak antolatzeke eta egituratzeko duen tresna baino ez da, hiriko gazteen errealitate bati erantzuteke. Aurreko Gazte Planean esaten zen bezala, gazteen arazoa ez da soilik gazte horiei eta gaur egun bizi-proiektu iraunkor bat eraikitzeke zailtasunari buruzkoa; aitzitik, iraunkortasun sozialeko kontua ere bada, sare soziala osatzen dugun pertsona guztioi dagokigun kontua, alegia.

Gazte Plan hau gauzatzeko, honako hauetan oinarritu gara:

- Gure hiriko gazteen egoeraren azterketa globala eta panoramikoa, hau da, errealitateari buruzko informazioa eta orain arte egindakoari buruz egindako balorazioari buruzko datuak.
- Errealitate horretatik eratortzen diren etorkizuneko erronkei buruzko ikuspegia.

**Udal Gazte Planak** honako hau esan nahi du:

- Gazteen kolektiboa eta errealitatea ardatz dituen plangintza.

- Hainbat mailatatik eraikia: politikoa, asoziatiboa eta teknikoa, eta udal-lana garatzen den arlo guztietatik, sektorialak zein zeharkakoak (udaleko beste plan eta sail batzuetara artikulatuak).
- Errealitatean aurrerapen zehatzak proposatzen dituen plangintza, premiazkoenak eta/edo lehentasunezkoenak.
- Eremu guztietan sartzen dira gazteen presentzia eta protagonismoa, planaren une guztietan parte hartzea eta berrikuntza, bai diseinatzen diren ekintzetan, bai egiteko modu berrietan.
- Lan erantzunkidea hiriko gazte-politiketako beste eragile batzuekin.
- Tresna malgua da, gazteen errealitatearen bilakaera, ezagupenera eta haren analisisira dinamikora egokitzea ez ezik (hain da aldatua covid-19 krisiaren ondorioak direla eta), jarraipenera eta ebaluazioetara ere egoki daitekeena.

## **Erronka: Gazteak**



## 1.- "ERRONKA: GAZTEAK" GAZTE PLAN BEREZI HONEN EZAUGARRIAK

- Denboran mugatua,
- Une jakin bateko beharretara egokitua,
- Arazo zehatz baten aurrean dagoena, eta
- Gazteen errealitatean nabarmentzen diren esparruak ardatz dituen.

### **Ezaugarri aipagarrienak hauek dira:**

- Malgutasuna une honetan sortzen ari diren egoera guztien aurrean.
- Denboren malgutasuna, egiten den azterketara egokituz joango dena.
- Malgutasuna, errealitateak adierazten dizkigun erritmoetara.
- Eta malgutasuna gazteen beharretarako egokienak diren denboralizazioetara.

Udal-egituraren barruan garatzen diren beste jarduketa batzuekin koordinatuta, eta, bereziki, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko gainerakoekin.

Zeharkakoa eta Gazte Planarekin lan egin ohi duten gazte-politiketako eragileekin koordinatua:

EGK, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.  
Gazteen elkargunea.  
Udal-talde politikoak.  
Gasteiz Gaztea sarea.  
Gazteria-politikan inplikaturako udal sailak.

Adostasuna bilatzea izan da Gazte Plan hau egiteko beste oinarrietako bat, bai eremu politikoan eta teknikoan, bai prozesuan lagundu diguten elkarteekiko eta gazteekiko harremanetan.

Gazte Plan honek beste puntu batean ere eragin nahi du: eremu guztietako jarduerak egituratzeko ardatzei eustean. Hau da, alde batetik, gure hiriko gazte-planen oinarri izan diren printzipio gidariak daude, eta, bestetik, planeko eta, oro har, gazte-planeko ekintzen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan hausnartu eta lantzen ditugun ardatz egituratzaileak.

### **Ardatz egituratzaileak:**

- Berrikuntza
- Partaidetza
- Zeharkakotasuna
- Protagonismo gaztea

Kasu honetan, berrikuntzak esan nahi du ekintza berria dela edo arrazoi argiekin egokitzen dela gizarte- eta osasun-krisiak sortutako egoerara.

Gazteen parte-hartzea eta protagonismoa EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan landuko dugu, Udalak haiekin duen hitzarmenaren bidez, bai EGK osatzen duten erakundeen bidez, bai gazteen bidez, banaka.

Zeharkakotasuna, batetik, gazteria-politikan inplikaturako dauden udal-sailekin egindako alde biko lanak emango du, eta, bestetik, gazteria-politikan diharduten eragileen sare osoarekin egindako zeharkako lanak.

## **2.- ZEHARKAKO PRINTZIOPIO GIDARIAK**

Printzipio gidariak gure gain hartzen ditugun aukeren isla dira, eremu guztietan gazteekin egiten den udal-jarduera planifikatzeko, gauzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko oinarri gisa. Planaren edukia inspiratzen eta informatzen duten funtsezko irizpideak dira, eta gazte-politikak jasotzen dituen beharrezko esparrua osatzen dute.

### **2.1.- IRAUNKORTASUNA**

Jasangarritasunak, gure hirian ingurumenaren arloan errotuta dagoen balio honek, aurrera egin behar du gazteria gaur egun jasangarritasun sozialeko gaitzat hartzeko. Ohitura osasungarriak, solidarioak, arduratsuak eta garapenean inplikatuak dituen gizartea jasangarria da, eta ingurumenarekin ez ezik, etorkizunarekin ere konprometitua.

Iraunkorra, garapen progresiboa eta iraunkorra markatzen duelako denboran zehar, 2030erako gazte-politiken helburuak lortzeko eta Garapen Jasangarriko Helburuen esparrua betetzeko bidean. Jasangarria, gazteen errealitatea eraldatzeko jarduera planteatzen duelako. Jasangarria, hurbiltasunetik jarduten duelako, tradizio handiko ezaugarria Gasteizen.

### **2.2.-ERANTZUNKIDETASUNA**

Erantzunkidetasuna; izan ere, badakigu oso zaila dela gazteen errealitateko hainbat esparrutan eragitea, eta aurreko gazte-planen esperientziak adierazten digu eragilean arteko ekintza koordinatuaren bidez soilik erantzun ahal izango diegula hobeto gazteen beharrei eta itxaropenei.

### **2.3.-GENERO-IKUSPEGIA**

Genero-ikuspegia Gazte Planean txertatuz lan egitea, generoari dagokionez berdintasunezkoa ez den egungo sistema gainditzeko, gizartean, oro har, eta gure hiriko gazteen artean, bereziki. Oraindik ere desberdintasun-egoerak daude gazteen artean, batez ere, sexuen arteko harremanetan, rol sozialetan eta lan-egoeretan.

Egoera horietan, harreman zuzena dago IV Genero Berdintasunerako Planarekin, Gazte Plana harekin konektatzen eta erlazionatzen baita. Horrela, modu koordinatuan lan egiten da hiriko gazteen artean genero-desberdintasunak murrizteko.

### **2.4.- EKITATEA**

Gazteen errealitatearen ezagutzatik abiatuta, desabantaila-egoerek eragin ditzaketen desberdintasunak ezagutzen ditugu, hala nola, osasuna, ezintasunak, gizarte- eta familia-egoerak edo gizarte- eta lan-egoerak. Plan honen helburuetako bat ekitatea bilatzea da eta gazteen askotariko egoerei erantzutea.

Bestalde, ekitatearen barruan sartzen da irisgarritasuna, aurreikusitako jardueretan parte hartzeko eskubidea gazte guztiei hurbiltzeko ahalegina, haien egoera edozein dela ere. Ildo horretan, Gazte Plan Bereziari dagokionez, bertan bultzatutako ekintza guztiak irisgarritasun unibertsala duten espazioetan eskaintzen direla bermatzea, pertsona guztiak berdintasun-egoeran parte har dezaten.

### **2.5.- EUSKARA**

Gaur egungo belaunaldi gazteak inflexio-puntua izan dira hirian, garapen soziolinguistikoari dagokionez. Gaur egun, gazteen erdiak baino gehiago euskaldunak dira, eta % 80 inguruk, neurri handiagoan edo txikiagoan, ulertzen dute. Beraz, euskara errealitate gaztea da Gasteizen.

Euskararen ikuspegitik, bereziki garrantzitsuak dira gazteek egiten dituzten jarduerak eta ekintzak; batik bat, gazte horiek protagonista dituzten ekintzak eta sareak sortzen laguntzen dutenak, unean unekoak baino gehiago.

Gazte Planak garatzen dituen ekintzetan, Gazteria Zerbitzuak, eta Udalak gazteei zuzentzen dizkien ekintzetan, irizpide horiek kontuan hartuko dira, eta kasu guztietan euskararen presentzia eta erabilera bermatuko dira.

## **2.6.- ERRESPECTUA ETA BIZIKIDETZA**

Ezin da "gazteria" aipatu kolektibo homogenea balitz bezala; gazteak daude, gizarte-egoera desberdinak dituzten eta bizi-proiektu desberdinak berekin dakartzan kolektibo heterogeneoa. Planak proposatzen dituen estrategiak aniztasun horretara egokitzen dira, eta hainbat behar dituzten gazteentzako hainbat ekintza proposatzen dira.

Nabarmena da gazte-kolektiboak aniztasun handia duela, bai 12 eta 29 urte bitarteko adina betetzen duen ardatzean (eta 35 urtera arte, zenbait alderditan), bai bizi-ardatzean, non nortasun, jatorri eta kultura desberdinetako gazteak baitira. Beharrezkoa da planak aniztasun hori guztia biltzea. Horregatik, ahaleginak egin behar dira mota guztietako identitateak dituzten pertsonen arteko bizikidetzak ikasteko: sexuala, jatorrizko kultura, aukera politikoak, aukera erlijiosoak...

Errespetua eta bizikidetzak belaunaldien artean ere, "Pertsona helduetatik" hasi eta gazteengana, eta alderantziz. Horretarako, beharrezkoa da gazteen aniztasuna eta arazo espezifikoak ikusarazteko, agertzeko eta protagonizatzeke lan egitea, eta biztanleria osoarekin hezkuntza-zentzuan lan egitea.

## **2.7.-INTEGRALITASUNA**

Gaztea modu integralean kontuan hartzea errealitatea eraldatzen lagun diezagukeen printzipioetako bat da. Udalak ezin du kolektibo hori modu partzial edo segmentatu batean tratatu, etxebizitza-premia edo prestakuntza jakin batekin joaten direnean; aitzitik, haien premiei modu koordinatuan erantzun behar diegu, eta gure jarduerak erakundearekin duten harremanaren parte direla pentsatu behar dugu, ez soilik sail jakin batekin duten harremanaren parte.

## **2.8.- KALITATEA**

Gazte-politikek gizarte-errealitatera egokitu behar dute, gazteen beharrei eta itzaropenei erantzuteko. Horregatik, beharrezkoa da gazte-errealitate hori eta haren gizarte-ingurunea etengabe behatzea eta ezagutzea, gazte-planak eta gazte-politikak garatzen dituzten gainerako eragileek lan egiten duten eremuetan. Ebaluazioa eta behaketa ezinbesteko elementuak dira Gazte Plan honek sustatzen eta egituratzen dituen gazte-politiken garapenean kalitate horretara iritsi ahal izateko.

### 3.- GAZTE-PLANAREN IKUSPEGIA ETA MISIOA

#### IKUSPEGIA:

Gasteiz gazteek beren bizitzako proiektuak eta mota guztietako aukerak (lanarekin, prestakuntzarekin, sormenarekin, familiarekin eta abarrekin lotutakoak) garatuko dituen hiria izan dadin nahi dugu, hiri eta gizarte osoaren iraunkortasun sozialerako bermerik onena horixe dela uste baitugu.


Gizartearen aldetik bidezkoagoa den hiria; hiri horretan, abiapuntuko egoerek ez dituzte baldintzatuko amaieran arrakasta izateko aukerak.

Gazteak inguruaren garapenean inplikatuko dituen eta protagonista izango dituen hiria. Gazteek, errealitateaz duten ikuspegiaren ekarpena eginez, gizartearen funtzionamenduan parte hartuko dute eta eragina izango dute hiri horretan.

#### MISIOA:

Gazte Planaren xedea da gazteei bizi-proiektu bat egiteko erraztasunak ematea, laguntza proaktiboaren bidez, bakoitzari bere bizitzako une eta fase egokienean, prozesu hauetan: emantzipazio-prozesuan, prestakuntza-prozesuan edo autonomia izaten ikasten ari denean, lana bilatzerakoan edota lan-munduan sartuta dagoenean, familia eratzeko prozesuan...

Gizartearen aldaketaren eragile bihurtu nahi ditu gazteak, gazteen kezka-iturri diren eta haiei eragiten dieten errealitatearen alderdi guztietan parte hartuz eta bizi diren hirian eta gizartean herritar aktibo gisa aritzeko duten ahalmenez jabetuta. Horretarako, gazteen protagonismoa, parte-hartzea eta inplikazioa bultzatuko ditu Gazte Planak, beren bizi-proiektuaren garapenean pertsona gisa garatzen eta aurrera egiten lagunduko dieten proposamenak nahiz Gasteizen garapenean lagungarri izango diren proposamenak diseinatzeko eta praktikan jartzeko orduan.






## 4.- LEGE-OINARRIA

### GAZTEEKIN LOTUTAKO GAIETAN UDALAK DITUEN ESKUMENEN LEGE-OINARRIAK

Gazteriari buruzko Legearen onartzeko eta indarrean jartzeko zain, legealdi honetan indarrean sartzea aurreikusten denez, hauek dira erreferentzia egiten zaien lege-iturri nagusiak, gaur egun balio osoa dutenak:

- *Espainiako Konstituzioa. 48. artikulua, Gazteriaren parte-hartzeari buruzkoa.*
  - *7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.*
  - *Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (3/1979 Lege Organikoa, abenduak 18koa). 10. art.*
  - *2012ko ekainaren 12ko Gobernu Batzordearen Akordioa, 2020rako Euskadiko III. Gazte Planaren Marko Orokorra: Gazteriaren arloko euskal estrategia onartzen duena.*
  - *2/2016ko Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeak arautzen dituena.*
- 17. artikulua- Udalen kompetentzi propioak: 36) gazteria politiken plangintza, antolaketa eta kudeaketa.*
- *Gazte Informazioko Euskadiko Sareari eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoari (OMIJ) dagokienez.*
    - *14/1988 dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Dokumentazio eta Informaziorako Euskadiko Koordinazio Zentroa sortzen duena.*
    - *211/1993 dekretua, uztailaren 20koa, Eusko Jaurlaritzarena, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena.*
    - *1992ko urriaren 26an, Arabako Foru Aldundiak, xede horretarako egindako eskaerari erantzunez, Gasteizko Udalaren gazteentzako informazio-bulegoaren onespren ofiziala eman zuen.*



## 5.- EGITEKO PROZESUA

### 5.1.- Faseak.

Egiteko prozesuak hiru fase izan ditu:

**Hausnarketa:** Alde batetik, Gazte Planeko teknikariek hasierako azterketa partekatu zuten, ondoren prozesu horretan parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztien ekarpenekin aberasteko. Hainbat ekarpen jaso ziren Udaleko hainbat zerbitzutatik ez ezik (Prestakuntza eta Formakuntza; Ikerketa Zerbitzua, Euskara, Zabalgune 21, eta abar...), gazteekin lan egiten duten erakundeetatik ere (Alderdi politikoetako gazteak, elkarteak...)

**Lehentasunak:** egungo egoeraren azterketa eta ezagutza zehatza ikusi ondoren, hurrengo urterako udal lanaren lehentasunak ezarri ziren lehentasunezko zatitza jotzen diren esparruetan. 40 entitatek bidali zituzten ekarpenak (65 pertsonak inguru), Gazte Planaren gainerako zatia eraikitzeke oinarri gisa balio izan dutenak.

<b>Gazteak</b>	<b>8</b>
<b>Elkarteak</b>	<b>7</b>
<b>Gazteekin lan egiten duten erakundeak</b>	<b>6</b>
<b>Udal teknikariak</b>	<b>16</b>
<b>Alderdi politikoak</b>	<b>2</b>
<b>Zehaztu gabe</b>	<b>2</b>
<b>Guztira</b>	<b>41</b>

Lehenengo bi faseetako ekarpenekin, Gazte Plana eraikitzeke balio izan zuen esparru-dokumentua egin zen.

**Ekintzen proposamena:** lehentasunen ondoren, eremu bakoitzerako jardueraren proposamenak egin ziren, eta, horrekin batera, eremuen arabera ekintza-sarea osatu zen.

Teknikariek ebaluazio-sistemarekin osatu zuten egitura.

**Zirriborroaren aurkezpena:** ekintzen proposamena eginda, plana aurkezten da parte hartu duten entitate guztiei, Elkarguneari eta Planaren jarraipenerako Batzorde Politikoari.

## **5.2.- Egitura: lana arloka.**

Gazte Plan honetan, oraingoz, alde batera utzi dugu jarduera-ildoen antolaketa, eta haren egitura esparruetan zentratu dugu. Pandemiaren krisiaren osteko egoera aztertu dugu, eta urte honetarako lanaren lehentasunak zehaztu ditugu. Plan honetarako ("Erronka: Gazteak") proposatu eta lehenetsi diren ekintzak antolatzen dira horietan. Hauek dira eremuak:

**Enplegua**  
**Etxebizitza**  
**Prestakuntza/Hezkuntza**  
**Osasuna**  
**Ekitatea**  
**Indarkeria matxista**  
**Boluntarioria**  
**Sormena**  
**Informazioa**  
**Euskara**  
**Mugikortasuna eta ingurumena**  
**Tokikoa - Globala**

## **5.3.- Garapen Iraunkorreko Helburuak.**

Sarreran aipatu dugun bezala, politika guztiak 2030erako helburuarekin eta Garapen Iraunkorreko Helburuekin lerrotzen ari gara. Horregatik, hemen jaso ditugu hautatutako eremuetako batzuekin lotutako helburuak:



### **Enplegua:**

8. GIH: Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina sustatzea.

- 8. GIH 5. jomuga: Enplegu osoa eta lan duina lortzea.
- 8. GIH 6. jomuga: Lanik eta ikasketarik gabeko gazteen kopurua murriztea.
- 8. GIH 8. jomuga: Lan-eskubideak eta lan segurua babestea.
- 8. GIH B jomuga: Gazteen enplegurako mundu-estrategia garatzea.

### **Etxebizitza:**

11. GIH: Hiriak eta giza kokalekuak barneretzaille, seguru, erresiliente eta jasangarri izan daitezen lortzea.

- 11. GIH 1go jomuga: Etxebizitzarako sarbidea aseguratzea.
- 11. GIH 2. jomuga: Garraio publikorako sarbidea hornitzea.
- 11. GIH 7. jomuga: Berdeguneetarako eta espazio publiko seguruetarako sarbidea hornitzea.

### **Prestakuntza/Hezkuntza:**

4. GIH: Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea.

- 4. GIH 1go jomuga: Bigarren Hezkuntzaren kalitatea bermatzea.
- 4. GIH 3. jomuga: Berdintasunezko sarbidea goi-mailako prestakuntzan
- 4. GIH 4. jomuga: Enplegua lortzeko gaitasunak handitzea
- 4. GIH 5. jomuga: Genero-desberdintasuna eta kolektibo kalteberak ezabatzea
- 4. GIH 7. jomuga: Garapen jasangarrirako hezkuntza globala sustatzea.

### **Osasuna:**

2. GIH: goseari amaiera ematea, elikagaien segurtasuna lortzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.

- 2. GIH 2. jomuga: malnutrizio mota guztiak amaitzea.
3. GIH: Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztion ongizatea sustatzea adin guztietan.
- 3. GIH 4. jomuga: Gaixotasun ez-transmisibleak eta osasun mentala murriztea.
  - 3. GIH 5. jomuga: Drogen eta alkoholaren abusuak prebenitzea eta tratatzea.
  - 3. GIH 6. jomuga: Zirkulazio-istripuak murriztea.
  - 3. GIH 7. jomuga: Sexu-osasunerako sarbidea bermatzea.
  - 3. GIH 3. jomuga: Tabakoaren kontrola.

### **Ekitatea:**

5. GIH: Genero-berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahalduntzea.

- 5. GIH 1go jomuga: Diskriminazioa amaitzea.
- 5. GIH 5. jomuga: Emakumearen erabateko parte-hartzea eta aukera-berdintasuna bermatzea.

16. GIH: Gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, justiziarako sarbidea erraztea eta kontuak ematen dituzten erakunde eraginkor eta inklusiboak eraikitzea.

- 16. GIH 1go jomuga: Indarkeria-mota guztiak murriztea.

### **Indarkeria matxista:**

5. GIH: Genero-berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahalduntzea.

- 5. GIH 1go jomuga: Diskriminazioa amaitzea.
- 5. GIH 2. jomuga: Genero-indarkeria mota guztiak ezabatzea.
- 5. GIH 4. jomuga: Zaintza eta etxeko lana aitortzea.
- 5. GIH 5. jomuga: Emakumearen erabateko parte-hartzea eta aukera-berdintasuna bermatzea.
- 5. GIH B jomuga: Teknologien eta IKTen erabilera hobetzea.

### **Boluntarioritza:**

16. GIH: Gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, justiziarako sarbidea erraztea eta kontuak ematen dituzten erakunde eraginkor eta inklusiboak eraikitzea.

- 16. GIH 7. jomuga: Herritarren parte-hartzea sustatzea.

### **Euskara:**

17+1 GIH: Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta aintzatespena bermatu pertsonen eta gizartearen garapenerako.

- 17+1 GIH 1go jomuga: Hizkuntza gutxiagotuak dituzten komunitateak ahaldundu eta ezagutarazi identitate desberdinak indartzeko.
- 17+1 GIH 5. jomuga: Arrakala digitala murriztu eta teknologia berriak hizkuntza guztietan, batez ere gutxiagotuetan, eskuragarri jarri.
- 17+1 GIH 6. jomuga: Hizkuntza gutxiagotuen presentzia bermatu hedabide mota guztietan: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak edota teknologia berrien alorrean garatutakoak.

**Mugikortasuna eta ingurumena:**

12. GIH: Kontsumo eta ekoizpen jasangarrien modalitateak bermatzea.

- 12. GIH 3. jomuga: Elikagaiak alferrik galtzea murriztea.
- 12. GIH 5. jomuga: Prebentzioa. Hondakinak murriztea, birziklatzea eta berrerabiltzea.
- 12. GIH 8. jomuga: Garapen jasangarrirako hezkuntza bermatzea.


13. GIH: Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

- 13. GIH 1go jomuga: Erresilientzia indartzea eta egokitzea.
- 13. GIH 2. jomuga: Klima-aldaketa planetan sartzea.
- 13. GIH 3. jomuga: Ingurumenaren hezkuntza eta sentsibilizazioa hobetzea.

**Tokikoa – Globala:**

10. GIH: Herrialdeen eta haien arteko aldeak murriztea.

- 10. GIH 2. jomuga: Pertsona guztien gizarteratze sozial, ekonomiko eta politikoa sustatzea, haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza edozein dela ere.



## 6.- ERREALITATEAREN HAUSNARKETA

Ekainean errealitatea aztertzeko bi txosten egin ziren, eta esteka hauetan kontsulta daitezke:

[Errealitatea aztertzeko 1go txostena](#). Ekainaren 11.(gaztelera).

[Errealitatea aztertzeko 2. txostena](#). Ekainaren 25a.

Gazte-plan horrek aldian-aldian eguneratuko ditu txosten horiek, eremu guztietako datuak sartuz, eta eguneratuta edukiko du errealitatearen ezagutza, diseinuan lagundu zuten eta "Erronka: Gazteak" gazte-planaren garapenean, jarraipenean eta ebaluazioan laguntzen duten pertsona eta erakunde guztien artean sozializatuz.

### 6.1.-Lan-eremua

Gazteek lan munduan zuten egoera ez zen ona. Bereziki ahula zen, izan ere, atzeraldi handia deitzen duten krisitik atera ondoren (2008tik 2015era) 2016tik 2019ra bitartean hobekuntza arinak izan baziren ere. Eta ahultasun horrek hainbat kasutan izan du eragina: langabezia gehiago eta ABEE gehiago. Izan ere, gazteak, kasu askotan, sektore prekarizatuenetan eta enplegua gehien suntsitu den lekuetan (turismoa, ostalaritza) daude. Horiei soldata baxuko kontratu-motak gehitu behar zaizkie (aldi baterakoak, nahi gabeko lanaldi partzialekoak) (ez dago koltxoi handirik egoerari eusteko). Ditugun datuek horrela adierazten digute.

Horrez gain, gizarte-prestazioak gutxiago iristen dira gazteengana, bai eta, hainbat arrazoi tarteko, lehendik zeuden aldeak ere: jatorriari, generoari eta, kasu batzuetan, gizarte-kapital maila txikiko auzoetan eta ISEC (indize sozioekonomiko kulturala) baxuko auzoetan bizitzeari dagokionak.

Krisi berria aurrekoarekin lotuta dago, eta maiatzeko jardunaldietan Gasteizen diseinatu genuen galdera jarri du mahai gainean: **Gazteen prekaritatea barneratzen, normalizatzen, kronifikatzen ari al gara?** Neurri batean edo guztiz galdutako belaunaldi gazte bat izateko arriskua dugu. Dualtasunaren gizartea sendotzen ari da, desberdintasun sozialak polarizatzen ari baitira, eta, horiekin batera, hezkuntzarako eta lan duinerako sarbidea.

Krisi honetan, telelana da indar handiz azaleratu den beste gai bat. Aukera gisa eta mehatxu gisa.

	Aldia		
Egungo gazteen belaunaldia	Atzeraldi handia (2008-2015)	Errekuperazio ahula (2016-2019)	Pandemiaren krisia (2020- ¿?)
Nerabe eta gazte gazteenak (16-23)	Prestakuntza-aldia	Prestakuntza-aldia	Prestakuntza-aldia eta lan-trantsizioa. Estrategia bat ikasketak luzatzea edo hauetara itzultzea izan daiteke
Gazte helduak (24-29)	Prestakuntza-aldia	Prestakuntza-aldia eta lan-trantsizioa. Trantsizioak hazkunde ahul batean gertatzen	Gehienek arriskuan ikusiko dute aurreko aldian lortutako gizarteratze ahula. Beste batzuek

		dira, eta horrek zaildu egiten du laneratzea sendotzea	nazioarteko mugikortasuna aukeratuko dute.
Heldu gazteak (30-35)	Eragin zuzena gehiengoarentzat: langabezia, prekarietatea eta diru-sarrera txikiak. Emigrazioa nahi eta ahal zutenentzat	Egoerak hobera egin zuen, baina krisi aurreko egoerara iritsi gabe. Prekarietateak eta soldata baxuek bere horretan jarraitzen dute, bai eta biztanleria orokorra baino langabezia handiagoak ere, iraupen luzeko langabezia gutxiengoa izanik.	Aurreko aldian egoera egonkortu dutenek krisiari aurre egin ahal izango diote, baina gehienak arriskuan edo egoera ahulean egongo dira. Zati handi batek bi krisiak kateatuko ditu, laneratzea finkatu gabe

### **6.2.- Etxebizitzaren eremua:**

Pandemiaren egoerak eta alarma-egoerak eragindako konfinamenduak, kasu batzuetan, jatorrizko etxera itzultzea ekarri du, eta emantzipatzeko hasitako modu desberdinak utzi. Gazteek emantzipazio-prozesuak eta bizi-proiektua osatu ahal izateko etxebizitza bat eskuratzeko duten zailtasuna estrukturala da, kronikoa azken hamarkadetan, eta areagotu egin da osasun-pandemiaren ondoriozko azken krisi horrekin.

### **6.3.-Prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremua:**

Ezaugarri nabarmenetako bat konfinamendua eta online hezkuntzarekin duen lotura izan da. Inpaktu negatiboa izan da, baina desberdina; ez die familia guztiei berdin eragin, desberdintasunak sortu ditu honako gai hauetan: ikasteko behar diren taldeak, Internetarako sarbidea, etxean ikasteko lekuaren edo lekuen eskuragarritasuna, familiaren tentsioak bizikideen kopuruaren eta etxebizitzaren tamainaren arabera, ikasteko orduan familiak ematen duen laguntza desberdina.

Garrantzitsua izan da, halaber, eskolak hezkuntzarekin zerikusia duen guztian duen garrantzia ikusaraztea. Kasu berezi bat Lanbide Heziketan ikusi behar da, enpresetan praktikak egin behar direlako. Hori ezinezkoa izan da, eta zenbait kasutan atzeratu egingo da ikasketa jakin batzuen amaiera. Gauza bera gertatu da unibertsitate-ikasketen adar batzuetan, hezkuntza duala gero eta ohikoagoa baita, eta horrek enpresetan praktikak egitea ere badakar.

Hezkuntza-aisialdiari dagokionez, eremu horretan sartzen ziren pertsonak, elkarteak, prestakuntza-eskolak eta gazte asko kaltetu dira. Oraindik airean jarraitzen du.

Hezkuntzaren amaierako eskemaren logikak, egoera hori zuzentzen ez bada, urrats hauetara eramango gaitu:

**Lanerako kualifikazio txikiagoa eta gaitasun gutxiago**



**Enpleagarritasun txikiagoa**



**Lan-ibilbide txarragoa (enpleguaren marjinak)**



**Posizio sozial okerragoa**

Eskema honek laguntzen du ikustera pobrezia oinordetu egiten dela, ez bakarrik arrazoi ekonomikoengatik —beste gazte belaunaldi batzuekin hezkuntza aldaketa posible izatea gertatu den bezala—, orain hezkuntza-munduak gauzak aldatzeko aukerarik eman ezin duelako.

#### **6.4.- Osasunaren eremua**

Eremu horretan, gazteen artean eragina izan duten hainbat alderdi aipatu eta izendatu behar dira: itxura fisikoa, lekurik eza, ariketarik eza eta elikadura-arazoak. Alderdi animikoari dagokionez, osasun mentalarekin eta horri lotutako gaiekin zerikusia duen guztia: harremanetarako zailtasunak, berdinekin espaziorik ez izatea, lehendik dauden nahasmenduak, jokoarekin eta ludopatiarekin lotutako arazoak (kasu honetan, on line joko-arazoak).

#### **6.5.- Ekitatearen eremua**

Eremu horretan, nabarmendu behar da desparekotasun- eta kalteberatasun-egoerak daudela gure hiriko gazteen artean. Egoera horiek desabantaila sortzen duten hainbat arrazoiengatik gerta daitezke. Horregatik, garrantzitsua da egoera guzti-guztiak aztertzea, garatu dugun plan honek gure hiriko gazteen egoera berdintasunez hobetu dezan.

#### **6.6.- Indarkeria matxistaren eremua**

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, eta genero-desberdintasunen adierazpen larriena, batez ere emakumeei eragiten diena, nahiz eta LGTBI pertsonak ere pairatzen duten.

Egiten ditugun jarduerak lagundu egin behar diete gazteei indarkeria- eta sexismo-egoerak identifikatzen, eta indarkeria matxistari buruz duten ikuspegi estereotipatuak alde batera uzten. Gainera, indarkeria matxistaren sentsibilizazio- eta prebentzio-jardueren kopuruak gora egin ahala, salaketan edo arre-etsaeraren kopuruak gora egiten du; izan ere, indarkeria matxistak identifikatzeko gaitasun handiagoa ematen diegu gazteei, eta indarkeria horri aurre egiteko dauden baliabideei eta zerbitzuei buruzko ezagutza handiagoa ere eskaintzen diegu.

#### **6.7.- Boluntariotzaren eremua**

Online arloaren garrantzia azpimarratzea, eremu guztietan bezala, eta gazteen ekintza solidarioak izan duen garrantzi handia nabarmentzea, batez ere konfinamenduan zehar sortu den boluntariotza-mugimenduan.



### **6.8.- Sormenaren eremua**

Gazteak kultura-kontsumitzaile edo sortzaile gisa bereiz genitzake, bai maila amateurrean, bai maila profesionalean. Biei eragin die krisiak ekarri duen online egiteko joerak. Lehenengoei eskaintza murriztu egin zaie, eta, kasu askotan, garestitu, eta, ondorioz, eremu horretan ere desberdintasun gehiago sortzen jarraitzen du. Sortzaile gazteei ere murriztu egin zaie beren sorkuntzak egin ahal izateko eskaintza, baita ere, laguntzen murrizketa ere, eta eragina izan du berez ahula zen sektorean, lan-arloan.

### **6.9.- Informazioaren eremua**

Covid-19ak sortutako egoerak biztanleria orokorraren baldintzak txarrera egitea ekarri du, eta gazteen kasuan, eragin hori bereziki gogorra izan da. Pandemiaren aurretik ezegonkortasun ekonomiko egoeran bazeuden, orain ezegonkortasun hori areagotu egin da.

Azken hilabeteotan OMIJen jasotako kontsulten arabera, ikusi dugu gazteek ziurgabetasun handia dutela beren lan-egoerari dagokionez. Gazte asko lana galtzeko beldur dira, beste batzuek galdu egin dute, eta pandemiaren aurretik langabezian zeudenek uste dute orain zailagoa izango dela kalitatezko enplegua lortzea.

Laneko ezegonkortasun eta ziurgabetasun horrek zuzenean eragiten du beste eremu batzuetan, hala nola, etxebizitza eskuratzean. Badira Eusko Jaurlaritzaren laguntzak, GazteLagun esaterako, eta salbuespenezkoak, covid-19k sortutako egoeragatik; baina alokairu eskuragarriagoak sustatu beharko dira, gazte askok ezin dituztelako laguntzak jaso gutxieneko diru-sarreretara ez iristeagatik, edo, laguntzak izanda ere, alokairu libreen prezioa oso altua delako.

Prestakuntzaren arloan, OMIJen kontsultak izan dira goi-mailako ikasketetarako eta hizkuntzetarako prestakuntza-bekekin lotutakoak. Gazteek prestakuntza jasotzen jarraitu nahi dute kalitatezko enplegua lortzeko, baina, kasu askotan, zaila ikusten dute ikasketa horien ordainketari aurre egitea. Bestalde, gazte askok aholkularitza bilatu dute bereziki enplegurako prestakuntzaren inguruan, adibidez profesionaltasun ziurtagiriak eskaintzen dituztenak.

Aholkularitza Gazteei dagokienez, nabarmendu behar da ez zutela beren lana gelditu konfinamenduan. Izan ere, bizitza-erritmoaren aldaketarekin eta bizi-erritmo horrek proiektu pertsonaletan duen eraginarekin, bakardadeko denborarekin, bizitza horri buruz hausnartzeko denborarekin, familiarekin espazio jarraitu bat partekatzearekin eta gai "delikatuak/ezkutuak" kudeatu behar izatearekin. Gazteek zalantzak, kezkak eta erabakiak hartzeko laguntza behar izaten jarraitu dute.

Egoera honen aurrean, informazioa eskuratzea funtsezkoa izango da desberdintasunak murrizteko. Oso beharrezkoa da aurrez aurreko, telefono bidezko eta online informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea, gazteen profil guztietara egokitzeko.

## **6.10.- Euskararen eremua**

Covid-19ren krisiak euskal arloan ere jo du eta kontuan hartu beharreko hutsuneak eta ahuleziak agerian utzi ditu.

Euskarazko komunikazioa:

- Komunikazio soziala eta instituzionala: Ahaleginak egiten jarraitu behar da bai edukiak bai komunikatzen den hizkuntzak bere garrantzia mantentzeko, batez ere, gazteen artean.
- Gazteen arteko komunikazioa: harreman-sare fisiko edo birtualetan euskararen erabilera indartu egin behar da, badirudi gutxitu egin dela, batez ere, kanal birtualetan.
- Euskaraz jakitea, erabiltzea eta gizarteratzea.

Euskara normalean hezkuntzarekin edo eskolaz kanpoko jarduerekin lotzen da (eskolari lotuak), edo agian (gutxiago) aisialdiarekin edo kirol-jarduerarekin. Ildo horretan, konfinamenduak eragina izan zuen ikastetxean euskararen erabilerarekin lotura handiena zuten pertsonentzat, eta galera handia izan da. Lan egin behar da etxean euskararik ez duten gazteek desabantailan dauden hizkuntza-arrakala arintzeko (are gehiago jatorri atzeritarreko familien kasuan).

Eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdia eta kirola euskaraz sozializatzeko esparrua izan dira. Eteten direnean, gazte batzuen bizitzatik euskara desagertu egiten da. Horrek ere ondorioak izango ditu bizitza akademikoari berriro ekitean.

- Euskararen bizitasuna

Konfinamenduak eta ondorengo egoera soziosanitarioak zenbait arlo baldintzatu ditu, hala nola aisialdia, eskolaz kanpoko jarduerak eta elkarguneak. Hala ere, beste batzuk mantendu egin dira, eta beste batzuk berreskuratzen ari dira. Horietan guztietan beharrezkoa da gazteen artean euskararen bizitasunari eustea.

## **6.11.- Mugikortasuna eta ingurumenaren eremua**

Arlo honetan, pandemiak agerian utzi du pandemiaren garrantzia, eta lehentasunezko lekua hartu du pertsonen bizitzan.

Alde batetik, ingurumen-politiken garrantzia, berdeguneen, baliabide naturalen eta, oro har, gozatzeko moduko ingurumen osasungarriagoaren balioarekin lotuta. Bide berdeen erabilera % 60 hazi da konfinamenduaren ondoren, eta horrek agerian utzi du naturguneak gure bizitzetan hartu duen garrantzia.

Bestetik, garraibide desberdinen erabilerak gora egin du, autoa eta eskala handiko garraioak (itsasontziak, hegazkinak, abiadura handiko trenak) gutxiago erabili izan dira, eta horrek ohiturak aldatzea eragin du uda honetan. Bizikletaren, patin elektrikoaren eta abarren erabilerari balioa eman zaio, ingurumena gehiago errespetatzen dutelako eta osasun-segurtasun handiagoarekin lotuta daudelako elementu gisa.

Hemen gazteriak adibidea eman du, baloratu eta agerian jarri behar dena, eta denboran iraun dezan lan egin behar dena.

### **6.12.- Tokikoa – Globalaren eremua**

Covid-19ren krisialdian herrien arteko harremanari lotutako proiektu ugari gelditu dira. Egoeraren larritasuna dela eta, ahalegin guztiak tokian-tokian egin behar izan dira, eta beste gai batzuk bigarren mailara igaro dira.

Hala ere, teknologia berriei esker eta konfinamenduan zehar pertsonen arteko komunikaziorako oinarri gisa egunero gehiago erabiltzeari esker, *urrun egotea* inoiz baino *hurbilago egotea* bihurtu da.

Hamarnaka app talde eta lagunekin harremanetan egoteko baliagarri izan zaizkigu *urrun egon* arren beren bizilekuetan pandemia *gertutik* nola bizitzen ari ziren kontatzeko.

Gazteek kontatutako esperientzia horiek oinarritzat har daitezke errealitate horiek arazo beraren aurrean islatzeko eta batera islatzeko, *urrun* zein *hurbil* daudenengandik ikasi ahal izateko.

## 7.- LANAREN LEHENTASUNAK EREMU BAKOITZEAN.

Prozesuan parte hartu zutenen ekarpenak bateratzeko eta definitzeko lan teknikoa egin ondoren, gazte-plan honek proposatutako eta hautatutako ekintzei aurre egiteko lehentasunak hautatu ziren.

### 1 - Enplegua:

1.1	Enplegu-programak sortzea (prekarietateari aurre egiteko lan-baldintza egokiekkin), bereziki gazteei zuzenduta.
1.2	Prestakuntza ertaina/baxua duten gazte langabeen eta gazte ahulenen kualifikazio-maila hobetzeko lan egitea.
1.3	Enpresen eta hezkuntza-erakundeen arteko harremanak ezartzea, Araban ikasitako lanbidean jardun ahal izateko.

### 2 - Etxebizitza

2.1	Gazteentzako alokairuko etxebizitza eskuragarriak erraztea (besteak beste: gazteentzako alokairu soziala sustatzea).
2.2	Gazteen beharretara egokitutako ostatu-eredu berritzaileak aztertzea eta ezartzea.
2.3	Etxebizitza hutsen parkea mobilizatzea, oinarrizko eskubide bat, etxebizitzarena, bete ahal izateko.

### 3 - Prestakuntza

3.1	Parte hartzeko espazioak sortzea, ikasleen iritzia ezagutzeko, ikasleen beharrak bertatik bertara ezagutzeko.
3.2	Hainbat arrazoiengatik eskola uzten duten kasuak etengabe ezagutzea eta hautemandako errealitatearen aurrean jarduteko aukerak eskaintzea.
3.3	Gazteen ibilbideei arreta ematea, prestakuntza-sistemaren mugetan (DBH amaitu ez duten pertsonen lan-gaikuntza).

### 3B – Hezkuntza ez formala

3B.1	Aisialdiko profesionalek aisialdiko hezkuntzan egiten duten lana ikusaraztea eta garrantzia ematea. Balioa ematea. Lan hau egiten duten edo arlo honetan diharduten eragileak ezagutaraztea.
3B.2	Gazteentzako hezkuntza ez-formaletik edo aisialdikotik egiten den lanari garrantzia eta zabalkundea ematea.

### 4 - Osasuna

4.1	Egokitzapen eta ongizate pertsonaleko prozesuak hobetuko dituzten gaitasun pertsonalak eta sozialak bultzatuko dituzten programak garatzea (harreman-eredu osasungarriak eta errespetuzkoak sustatzea eta bizimodu osasungarriak sustatzea, adizioak landu...)
-----	--

4.2	Gazteen osasun psikologikoan esku hartzen duten eragile guztien koordinazioa: Osakidetza, gazteria, elkarteak, kale-hezitzaileak... (horretarako, espazio bat sortu behar da).
4.3	Gaur egun gazteentzat eskuragarri dauden osasun mentaleko zerbitzuen ezagutza sustatzea.

### 5.- Ekitatea

5.1	Jatorri desberdinetako gazteen integrazioa lortzea.
5.2	Eskola-bereizketa saihesteko neurriak ezartzea, gizarte kohesionatuagoa lortzeko.
5.3	Gazte ahulenen arrakala digitalaren aurka borrokatzea.

### 6 - Indarkeria matxista

6.1	Indarkeria matxistaren kasuetan esku hartzen duten eta jasota dauden edo egon daitezkeen agente guztiak koordinatzea (Udala: Berdintasun Zerbitzua, Gizarte Politiketako Saila eta Udaltzaingoa. Aholkularitzak. Foru Aldundia)
6.2	Gazteei zuzendutako programak babestea, indarkeria matxistari dagokionez hezteko eta aurrea hartzeko.
6.3	Prebentzio-jarduerak babestea eta inplementatzea, indarkeria matxista prebenitzeko udal-estrategiaren jarduerak babestuz eta inplementatuz.

### 7 - Boluntarioritza

7.1	Gazteak gai publikoetan eskubide osoko pertsona gisa inplikatzeko eta parte hartzea lortzea, protagonista direla sentituz. Gazteek belaunaldien arteko lankidetzaren programetan parte hartzea.
7.2	Gizarte-erakundeei boluntarioritzaren kudeaketan laguntzea.
7.3	Boluntarioritzako balioak eta praktikak sustatzea hezkuntza formaletik, prozesu horretan Gasteizko ikastetxeekin batera lan eginez.
7.4	Gazteen artean egiten diren boluntarioritza-modu berriak identifikatzea eta sustatzea, batez ere Europako boluntarioritza soziala, Erasmus+ bezalako programen bidez.

### 8 - Sormena

8.1	Elkartzeko eta sortzeko espazioak sustatzea (espazio fisikoak eta birtualak).
8.2	Gazteen protagonismoa espazio horien dinamizazioan.
8.3	Gazte sortzaileak sustatzeko baliabideak sortzea eta babestea.

### 9 - Informazioa

9.1	Sinergiak sortzea hainbat eragilek Gasteizen gazteei zuzendutako programa guztiak zabaltean (partekatzea, informazio-sareak sortzea, lankidetzak).
9.2	Aurreko guztiarekin lotutako informaziorako sarbidea erraztea, desberdintasunak saihestuz (hizkuntza ulergarria, informazioaren hedapen)

	selektiboa, etab.)
<b>9.3</b>	Hainbat informazio- eta aholkularitza-kanal bermatzea (online, aurrez aurre, telefonoz...)

## 10 - Euskara

<b>10.1</b>	Komunikazio soziala eta instituzionala. Euskarak galdutako eremua berreskuratzea konfinamenduaren ondorioz.
<b>10.2</b>	Gazteen arteko komunikazioa: harreman-sareetan (sare sozialak barne) euskararen erabilera bultzatzea.
<b>10.3</b>	Etxean euskararik ez duten gazteen arteko hizkuntza-aldea murriztea desabantailan dago (are gehiago jatorri atzerritarreko familien kasuan).

## 11 - Mugikortasuna eta ingurumena

<b>11.1</b>	Ingurumen-konpromisoa errazten duten udal-zerbitzuak sustatzea eta gazteak arduratsu erabil ditzaten sentsibilizatzea: mugikortasuna, ura eta energia, hondakinak, biodibertsitatea, berdea eta lurraldea.
<b>11.2</b>	Ingurumen-politiken definizioan gazteek parte hartu ahal izateko espazioak/tresnak.
<b>11.3</b>	Gazteen mugikortasuna bizikletan eta garraio publikoetan, oro har, bizitako esperientziaren ondoren.

## 12 – Tokikoa – Globala

<b>12.1</b>	Gasteizko eta hegoaldeko herrialdeetako gazteen arteko trukerako estrategia berritzailea sortzea (boluntarioak, kulturala...), gazteen errealitateak eraldatzeko ekintza bateratuak egin ahal izateko.
<b>12.2</b>	Kultura-kudeaketako ezagutzak munduko beste leku batzuetako gazteekin transferitzea ahalbidetuko duten ekintzak babestea.
<b>12.3</b>	Gasteizko gazteen artean Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) ezagutzan lan egitea, horiek betetzen laguntzeko jarrera-aldaketak sustatzeko.

